Compte rendu de la réunion du Syndicat Mixte GARBIKI
de collecte des déchets ménagers et assimilés
Mardi 29 mars 2016 à 20 heures 30

Etxeko hondakinen eta idurikoen biltzeko
GARBIKI Sindikatu Anitzaren bilkura txostena
2016ko martxoaren 29an, asteartearekin, 20:30ean.

**Présents / Hor zirenak:** ARBELETCHE Sylvie, BERNARD Claude, LOUIT Sophie, INCHAUSPE Beñat, ALKHAT Antton, OLHATS Jean-Michel, DACHARY Jean-Pierre, DARRITCHON Maylis, CLAVERIE Dominique, HARGOUS Jean-Michel, HARISTOY Jean-Marie, EDOUARD Claude.
**Absent(s) représenté(s) ou ayant donné procuration / Falta zirenak baina ordezkari bat edo prokurazioa zutenak**: LACOSTE Xavier (prokurazioa LOUIT Sophie andereari emanik).
**Absent(s) non représenté(s) et n'ayant pas donné de procuration / Falta zirenak, ordezkaririk eta prokuraziorik gabe**: DUHALDE Maïté, BISCAICHIPY Maïté, ARMENDARIZ Alain.

Le Comité Syndical s'est réuni le Mardi 29 mars 2016 à 20 heures 30 à l'immeuble "ARY" à HASPARREN.
Sindikatu Batzordea 2016ko martxoaren 29an bildu da, asteartearekin, 20:30ean, Hazparneko ARY eraikinean.

**1 / Approbation du compte rendu du Comité Syndical du 01/12/15 :**

Le compte rendu de la séance du 01 décembre 2015 est approuvé à l'unanimité.

**2 / Désignation d'un secrétaire de séance :**

Madame Maylis DARRITCHON est désignée à l'unanimité comme secrétaire de séance.

**3 / Approbation du Compte de gestion 2015 :**

Monsieur le Président indique que le compte de gestion de Mme le Trésorier est identique au Compte administratif du Syndicat Mixte Garbiki.

Monsieur le Président propose d'approuver le compte de gestion 2015 du Syndicat Mixte Garbiki.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

**4 / Approbation du Compte administratif 2015 :**

Monsieur le Président quitte la séance et laisse le soin à Madame Sophie LOUIT de présenter les résultats du compte administratif 2015 qui se clôture comme suit :

**1 / 2015/12/01eko Sindikatu Batzordearen txostenaren onartzea:**

2015eko abenduaren 1.eko bilkurako txostena aho batez onartua da.

**2 / Bilkurako idazkariaren izendatzea:**

Maylis DARRITCHON anderea aho batez bilkurako idazkari izendatua da.

**3 / 2015eko kudeaketa kontuaren onartzea:**

Jaun Lehendakariak adierazi du Diruzain Anderearen kudeaketa kontua eta Garbiki Sindikatu Anitzaren Kontu administratiboa berdin direla.

Jaun Lehendakariak proposatu du Garbiki Sindikatu Anitzaren 2015eko kudeaketa kontuaren onartzea.

Sindikatuko Batzordea aho batez ados da.

**4 / 2015eko Kontu administratiboaren onartzea:**

Jaun Lehendakaria bilkuratik joan da eta 2015eko Kontu administratiboko emaitzen aurkezteko ardura Sophie LOUIT anderearen gain utzi du. Kontu hau honela bururatzen da:

- Section de fonctionnement : + 225 559.68 €
- Section d'investissement : + 850.39 € (- 130 511.01 € en intégrant les restes à réaliser).

Madame Sophie LOUIT propose de procéder à l'approbation du Compte administratif 2015.

Accord à l'unanimité du Comité Syndical.

**5 / Affectation de résultat 2015 :**

Monsieur le Président propose d'affecter le résultat 2015 de la manière suivante :

- Funtzionamendu saila: + 225 559.68 €
- Inbestizamendu saila: + 850.39 € (- 130 511.01 €, egiteko gelditzen direnak -*RAR*- sartuz).

Sophie LOUIT andereak 2015eko Kontu administratiboaren onartzea proposatu du.

Sindikatuko Batzordea aho batez ados da.

**5 / 2015eko emaitzaren esleitzea:**

Jaun Lehendakariak proposatu du 2015eko emaitza beherago adierazi bezala esleitzea:

- SECTION DE FONCTIONNEMENT :

| | |
|---|---|
| Résultat de l'exercice | + 43 735.48 € |
| Résultat reporté 2013 (002) | + 181 824.20 € |
| Résultat de clôture | + 225 559.68 € |

- SECTION D'INVESTISSEMENT :

| | |
|---|---|
| Résultat de l'exercice | - 97 527.87 € |
| Résultat reporté 2013 (001) | + 98 378.26 € |
| Résultat cumulé | 850.39 € |
| Reste à réaliser - Dépenses - | 132 661.72 € |
| Reste à réaliser - Recettes - | 1 300.32 € |
| Solde RAR | - 131 361.40 € |
| Déficit d'investissement cumulé | - 130 511.01 € |

- AFFECTATION DU RESULTAT DE LA SECTION DE FONCTIONNEMENT :

| | |
|---|---|
| En couverture du besoin de financement de la section d'investissement (1068) | 130 511.01 € |
| En dotation complémentaire (1068) | - |
| Total 1068 | 130 511.01 € |
| En excédent reporté à la section de fonctionnement (002) | 95 048.67 € |

- TRANSCRIPTION BUDGETAIRE DE L'AFFECTATION DE RESULTAT :

| Section de Fonctionnement | | Section d'Investissement | |
|---|---|---|---|
| Dépenses | Recettes | Dépenses | Recettes |
| - | 002 : 95 048.67 € | RAR : 132 661.72 € | RAR : 1 300.32 €<br>001 : 850.39 €<br>1068 : 130 511.01 € |

- FUNTZIONAMENDU SAILA:

| | |
|---|---|
| Finantza aldiaren emaitza | + 43 735.48 € |
| Erakarri 2013ko emaitza (002) | + 181 824.20 € |
| Bururatze emaitza | + 225 559.68 € |

- INBERTSIO SAILA:

| | |
|---|---|
| Finantza aldiaren emaitza | - 97 527.87 € |
| Erakarri 2013ko emaitza (001) | + 98 378.26 € |
| Metatu emaitza | 850.39 € |
| Egiteko gelditzen dena (*RAR*) - Gastuak - | 132 661.72 € |
| Egiteko gelditzen dena (*RAR*) - Sartzeak - | 1 300.32 € |
| Egiteko gelditzen dena (*RAR*) - Balantza - | - 131 361.40 € |
| Inbestizamendu defizit metatua | - 130 511.01 € |

- FUNTZIONAMENDU SAILAREN EMAITZAREN ESLEITZEA:

| | |
|---|---|
| Inbestizamendu sailaren finantzamendu beharren estaltzeko (1068) | 130 511.01 € |
| Dotazio gehigarri gisa (1068) - 1068 orotara - | 130 511.01 € |
| Funtzionamendu sailean erakarri soberakin gisa (002) | 95 048.67 € |

- EMAITZAREN ESLEITZEA BUXETEAN IDATZIRIK:

| Funtzionamendu saila | | Inbestizamendu saila | |
|---|---|---|---|
| Gastuak | Sartzeak | Gastuak | Sartzeak |
| - | 002: 95 048.67 € | *RAR*: 132 661.72 € | *RAR*: 1 300.32 €<br>001: 850.39 €<br>1068: 130 511.01 € |

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Jaun Lehendakariak proposatu du bozkara pasatzea.

Accord unanime du Comité Syndical.

Sindikatuko Batzordea aho batez ados da.

**6 / Débat d'orientation budgétaire 2016 :**

**6 / 2016ko buxet orientazio eztabaida:**

Monsieur le Président rappelle que, réglementairement, chaque année, un Débat d'Orientations Budgétaires (DOB) doit précéder le vote du budget.

Jaun Lehendakariak oroitarazi du, arauen arabera, urte guziz, buxet orientazio eztabaida (*DOB*) bat egin behar dela buxeta bozkatu baino lehen.

Monsieur le Président présente les orientations budgétaires suivantes :

Jaun Lehendakariak ondoko buxet orientazioak presentatu ditu:

## *I ) Section de fonctionnement :*

### 1) Dépenses :

- Le chapitre 011 (charges à caractère général) se caractérise par une relative stabilité des crédits affectés : Baisse de 4 % envisagée.

Il est ici rappelé que la mise en place des colonnes semi-enterrées (CSE) est assurée de la manière suivante :

- Le syndicat finance l'acquisition des CSE (solution préconisée par les services techniques) et des systèmes d'accès (badges) correspondants.
- La commune finance les travaux de décaissement et de mise en place (raccords avec la chaussée voisine, …) des CSE via son programme de voirie.

- Au chapitre 012 (charges de personnel) une augmentation de 4 % est nécessaire afin de tenir compte du « Glissement Vieillesse Technicité » (GVT) lié aux avancements d'échelon et de grade d'une part, et de pouvoir revaloriser le régime indemnitaire d'autre part.

- Au chapitre 65 (charges de gestion courante), le prévisionnel de participation à Bil Ta Garbi passe de 740 000 € en 2015 à 600 000 € en 2016.

Afin de mieux comprendre cette baisse sensible, il convient d'apporter les précisions suivantes :

- La participation 2016 est similaire à celle de 2014.
- La forte hausse constatée en 2015 s'explique par les effets cumulés suivants :
  - Augmentation du coût de traitement des OMr (+ 5.5 € / tonne), du coût de tri des emballages et JRM (+ 12 € / tonne) et de la participation au Budget Administration Générale (+ 0.44 € / habitant).
  - Baisse du montant des recettes de reventes de matériaux ainsi que des soutiens d'Eco-Emballages.
  - Surestimation des quantités de matériaux à traiter.

Il convient, par ailleurs, de rappeler que le coût de traitement des OMr et des encombrants facturé annuellement par BTG est variable car lié aux :

## *I ) Funtzionamendu saila:*

### 1) Gastuak:

- 011 kapituluaren (izaera orokorreko gastuak) ezaugarria da esleitu kredituak aski egonkorrak direla: % 4ko beheititzea pentsatua da.

Hemen, oroitarazi da erdi lurperatuak diren zutabeen (*CSE*) ezartzea honela segurtatua dela:

- Sindikatuak erdi lurperatuak diren zutabeen erostea (zerbitzu teknikoek gomendatu aterabidea) eta horien irekitzeko sistemak (pasa txartelak) diruztatzen ditu.
- Herriak zutabeak plantan ezartzeko eta lurperatzeko lanak diruztatzen ditu (ondoko bidearekin lotzea…), bere bide programaren bitartez.

- 012 kapituluan (langile gastuak), % 4ko emendatzea beharrezkoa da «Zahartasun eta teknikotasun Lerratzea» (*GVT*) kontuan hartzeko, alde batetik maila aitzinamenduari loturik, eta beste alde batetik, ordainsarien erregimenaren emendatzeko.

- 65 kapituluan (usaiako kudeaketa gastuak), Bil Ta Garbin parte hartzearen aitzinkontua 740 000 €-tik 600 000 €-ra iragaten da, 2015etik 2016ra.

Apaltze aski azkar hori hobeki konprenitzeko, ondokoak zehaztu behar dira:

- 2016ko parte hartzea 2014koaren idurikoa da.
- 2015ean gertatu emendatze azkarra ondoko arrazoiengatik heldu da:

- Gelditzen diren Etxeko Hondarkinen (*OMr*) tratatzeko gastuen emendatzea (+ 5.5 € / tona), gainestalkien eta Egunkari eta Aldizkarien (*JRM*) bereizteko gastuena (+ 12 € / tona) eta Administrazio Orokorreko Buxetean parte hartzearena (+ 0.44 € / bizilaguneko).
- Ekaien berriz saltzearen irabazien eta Eco-Emballages egituraren diru laguntzen ttipitzea.
- Tratatu beharreko ekaien kantitatearen soberestea.

Bestalde, oroitarazi behar da Gelditzen diren Etxeko Hondarkinen eta hondarkin trabagarrien tratatzeko BTGk fakturatzen duen gostua aldatzen dela, ondoko ezaugarrien araberakoa baita:

- Performances obtenues l'année précédente.
- Quantités de matériaux potentiellement collectées au cours de l'année à venir.

Suite aux diverses réformes de collecte, à l'effet conjugué de la diminution des quantités d'OM prises en charge et à l'augmentation de nos performances de collecte sélective - notamment le carton et les bouteilles en plastique qui sont les matériaux les plus rémunérateurs - en 2015, le coût de traitement 2016 des OMr est ainsi revenu à son niveau de 2014 (129 € / tonne soit 25 € / tonne de moins qu'en 2015). Cette forte baisse du coût de traitement des OMr a un impact considérable sur notre participation à BTG puisqu'elle diminue d'environ 90 000 € sur ce poste uniquement …

Monsieur Jean-Michel HARGOUS note que ces éléments explicatifs démontrent - s'il en était encore besoin - l'intérêt financier de réduire le volume des OMr collecté. Il salue, par ailleurs, la qualité du travail réalisé depuis 10 ans par le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi.

- Le versement d'une subvention exceptionnelle de lancement de 1 000 € à l'association Bastid'Eko est, par ailleurs, proposé. Cette association - via la mise en place de 4 ateliers de travail animés par des bénévoles - organise depuis 2015 sur la commune de La Bastide Clairence des actions de sensibilisation à l'environnement et au tri des déchets.

- Le virement à la section d'investissement sera de l'ordre de 260 000 €.

**2) Recettes** :

- Afin d'une part, d'équilibrer la section de fonctionnement et d'autre part, de tenir compte du zonage de la TEOM (cf. délibération du 11 octobre 2005), il est proposé au Comité Syndical de fixer les taux d'imposition 2016 de la manière suivante :

- Communes d'Armendaritz : 12.09 %
- Communes d'Ayherre : 9.23 %
- Commune de Bonloc : 10.87 %
- Commune de Briscous : 9.55 %
- Commune de Hasparren : 12.19 %
- Commune de Hélette : 10.85 %
- Commune d'Iholdy : 11.66 %

- Aitzineko urtean erdietsi emaitzak.
- Ondoko urtean bil daitezkeen ekai kantitateak.

Bilketaren erreforma desberdinen ondorioz, 2015ean bildu Etxeko Hondarkinen ttipitzearen ondorioz eta hondarkinen bereizketan erdietsi ditugun emaitza hobeen ondorioz - bereziki kartoia eta plastikozko botilak, horiek baitira irabazi gehien ekartzen dutenak -, Gelditzen diren Etxeko Hondarkinen tratatzearen gostua, 2016an, 2014ko gostuaren heinera itzuli da (129 € / tona, erran nahi baita, tona bakoitzeko, 2015ean baino 25 € merkeago). Gelditzen diren Etxeko Hondarkinen tratatzearen gostuaren ttipitze azkar horrek BTGn dugun parte hartzean ondorio gaitza du, sail horretan bakarrik, 90 000 € gutiago ordaintzen baitugu…

Jean-Michel HARGOUS jaunak notatu du azalpen horiek erakusten dutela - oraino beharrezkoa balitz - Gelditzen diren Etxeko Hondarkinen bolumenaren ttipitzearen interes ekonomikoa. Bestalde, azpimarratu du Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzak azken 10 urteetan egin lanaren kalitatea.

- Bestalde, proposatua da Bastid'Eko elkarteari abiatzeko 1 000 €-ko diru laguntza berezi baten ematea. 2015az geroz, elkarte horrek - borondate oneko laguntzaileek animatu 4 lantalderen bidez - ingurumenari eta hondarkinen bereizteari sentsibilizatzeko egintzak antolatzen ditu, Bastidan.

- Inbestizamendu sailaren biramendua 260 000 €-ren ingurukoa izanen da.

**2) Sartzeak**:

Alde batetik, funtzionamendu sailaren orekatzeko eta beste alde batetik, *TEOM* zergaren eremuak kontuan hartzeko (ikus 2005eko urriaren 11ko deliberamendua), Sindikatuko Batzordeari proposatua zaio 2016ko zerga tasak beherago idatzi bezala finkatzea:

- Armendaritze: % 12.09
- Aiherra: % 9.23
- Lekuine: % 10.87
- Beskoitze: % 9.55
- Hazparne: % 12.19
- Heleta: % 10.85
- Iholdi: % 11.66

- Commune d'Irissarry : 10.75 %
- Commune d'Isturitz : 11.41 %
- Commune de La Bastide Clairence : 10.04 %
- Commune de Lantabat : 15.53 %
- Commune de Macaye : 10.54 %
- Commune de Mendionde : 9.84 %
- Commune de Saint Esteben : 11.61 %
- Commune de St Martin d'Arbéroue : 9.99 %
- Commune de Suhescun : 19.36 %

Il convient d'indiquer que ces taux se décomposent de la manière suivante :

- Pour 60 %, d'une part variable (proportionnelle au service rendu dans chaque commune) consacrée au financement de la collecte et du traitement des Ordures Ménagères.
- Pour 40 %, d'une part fixe - identique sur l'ensemble du Syndicat - liée au financement des autres collectes (déchetteries, collecte sélective, verre et papier).

- Le résultat reporté se chiffre à 95 000 €

***II) Section d'investissement :***

**1) Dépenses :**

Les principales opérations pourraient être les suivantes :

- Acquisition de colonnes semi-enterrées pour 100 000 €
- Acquisition de colonne sélective pour 23 500 €
- Acquisition d'un camion benne pour 200 000 €
- Acquisition d'un chargeur élévateur télescopique pour 25 000 €
- Mise aux normes déchetteries et mise en place d'un sarcophage de protection de la benne à ferraille pour 35 000 €
- Agrandissement de l'auvent de la déchetterie de Briscous pour 12 000 €
- Agrandissement de la plateforme à déchets verts de la déchetterie de Briscous pour 42 000 €
- Création d'un quai à ferraille à la déchetterie de Hélette pour 10 000 €
- Fin du programme de réhabilitation des décharges sauvages pour 22 500 €

**2) Recettes :**

Les principales recettes seront :

- Irisarri: % 10.75
- Isturitze: % 11.41
- Bastida: % 10.04
- Landibarre: % 15.53
- Makea: % 10.54
- Lekorne: % 9.84
- Donoztiri: % 11.61
- Donamartiri: % 9.99
- Suhuskune: % 19.36

Zehaztu behar da tasa horiek ondoko maneran osatzen direla:

- % 60, parte aldakor bat (herri bakoitzean eman zerbitzuaren araberakoa), Etxeko Hondarkinen biltzearen eta tratatzearen ordaintzeko.
- % 40, parte finko bat - Sindikatu osoan berdin dena -, beste bilketen ordaintzeko (hondarkintegiak, sailkako bilketa, berina eta papera).

- Erakarri emaitza 95 000 €-koa da.

***II) INBERTSIO SAILA:***

**1) Gastuak:**

Operazio nagusiak ondokoak izan daitezke:

- Erdi lurperatuak diren zutabeen erostea: 100 000 €
- Sailkako zutabe baten erostea: 23 500 €
- Iraulki kamioi baten erostea: 200 000 €
- Kargatzaile altxatzaile teleskopiko baten erostea: 25 000 €
- Hondarkintegiak arauen arabera ezartzea eta burdinen ontziaren gerizatzeko sarkofago baten ezartzea: 35 000 €
- Beskoitzeko hondarkintegiko hegazpearen handitzea: 12 000 €
- Beskoitzeko hondarkintegiko hondarkin berdeen plataformaren handitzea: 42 000 €
- Heletako hondarkintegian burdinen kaia baten egitea: 10 000 €
- Zikintegi basen garbitzeko programaren bukatzea: 22 500 €

**2) Sartzeak:**

Sartze nagusiak ondokoak izanen dira:

- Un résultat reporté de l'ordre de 130 500 €
- Le virement de la section de fonctionnement à hauteur de 260 000 €

Le Comité Syndical prend acte de ces Orientations Budgétaires 2016.

**<u>7 / Questions diverses</u> :**

- **Mise en place d'une opération à caractère exceptionnel de collecte de pneus agricoles usagés :**

Monsieur le Président rappelle à l'assemblée que la problématique des pneus agricoles usagés est bien réelle :

- Deux dépôts sauvages représentant 4.5 Tonnes de pneus ont été recensés ces derniers mois sur le territoire.
- De multiples appels d'agriculteurs relatifs à cette question parviennent au siège du syndicat.

Les deux déchetteries du territoire acceptent, en effet, ce type de produits mais au prix de son traitement actuel (180 € / Tonne) ce qui dissuade la majorité des exploitants agricoles.

Après en avoir débattu, **le Comité Syndical décide d'organiser une opération exceptionnelle de collecte de pneus agricoles usagés** selon les modalités suivantes :

- Financement de cette opération selon la clef de répartition suivante : 2/3 par le syndicat soit 120 € / Tonne et 1/3 par l'agriculteur soit 60 € / Tonne et ce, dans la limite du budget alloué à cette opération.
- Un questionnaire sera adressé à l'ensemble des agriculteurs du territoire d'ici fin avril 2016 afin de recenser - d'ici fin mai - le volume total de pneus à collecter.
- L'opération se devra d'être programmée à l'automne 2016.

- **Optimisation de la collecte du verre :**

Afin d'être plus performant en ce qui concerne la collecte du verre, Monsieur le Président propose de mettre en place courant 2016 un plan d'action incitatif permettant d'augmenter les tonnages collectés.

- Erakarri emaitza: 130 500 € inguru.
- Funtzionamendu sailaren biramendua: 260 000 €

Sindikatuko Batzordeak 2016ko buxet orientazio horiek kontuan hartu ditu.

**<u>7 / Beste gai batzuk</u>:**

- **Laborantzako kautxu erroten biltzeko operazio berezi baten plantan ezartzea:**

Jaun Lehendakariak biltzarrari oroitarazi dio laborantzako kautxu erroten arazoa funtsezkoa dela:

- Azken hilabeteetan, 4,5 tona errota kautxu biltzen dituzten bi zikintegi basa aurkitu dira lurraldean.
- Laborari anitzek sindikatuari telefonatzen diote, arazo horren aipatzeko.

Lurraldeko bi hondarkintegiek produktu klase hori onartzen dute, baina haren tratatzeko oraingo prezioan (180 € / tona), eta horrek laborari gehienak gibelarazten ditu.

Eztabaidatu ondoan, **Sindikatuko Batzordeak erabaki du laborantzako kautxu errota higatuen biltzeko operazio berezi baten plantan ezartzea,** ondoko moldeetan:

- Operazio hau ondoko banaketa gakoen arabera finantzatuko da: sindikatak 2/3, erran nahi baita 120 € / tona, eta laborariak 1/3, erran nahi baita 60 € / tona, eta hori, operazio horri eman buxeta bukatu arte.
- 2016ko apiril hondarra baino lehen, galdetegi bat igorriko zaie lurraldeko laborari guziei, bildu behar diren errota kautxuen bolumen osoaren estimatzeko, maiatz hondarra baino lehen.
- Operazioa 2016ko udazkenean egin beharko da.

- **Berinaren bilketaren optimizatzea:**

Berinaren bilketaren alorrean eraginkorrago izan nahiz, Jaun Lehendakariak proposatu du 2016an egintza plan sustagarri bat plantan ezartzea, biltzen diren kantitateen handitzeko gisan.

Monsieur Jean-Michel HARGOUS précise que cette opération devra comprendre :

- L'acquisition de **colonnes à verre supplémentaires - avec des trappes pour gros producteurs** - afin de densifier les PAV. L'objectif étant d'arriver à un taux de dotation d'une colonne à verre pour 250 habitants.
- La **gratuité des colonnes mobiles mises à disposition des professionnels** (cf. uniformisation de la pratique observée sur le syndicat mixte Bil Ta Garbi).
- La **mise en place d'équipements spécifiques de tri du verre dans les salles de fêtes et les locaux associatifs**.
- Un plan de communication dédié (Bulletins municipaux, Articles de presse, Reportage TV, ….).

Le Comité Syndical valide cette proposition.

- **Fermeture de l'Installation de Stockage de déchets non dangereux (ISDND) de Hazketa :**

Monsieur le Président fait un point d'étape sur ce dossier et indique que le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi a décidé de procéder à la fermeture définitive de l'ISDND de Hazketa à la date de fin prévue par l'arrêté d'autorisation d'exploiter en cours soit le 31 mai 2016. La décision préfectorale correspondante est en attente.

Cependant, à titre conservatoire, la mairie de Hasparren fera appel de la décision du Tribunal Administratif ayant débouté cette collectivité sur sa demande d'annulation des délibérations initiales prises par le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi pour proroger l'exploitation du site de Hazketa, en souhaitant vivement que la décision préfectorale d'arrêt définitif d'exploitation intervienne avant cette date.

En toute hypothèse, Monsieur le Président précise qu'il conviendra de rester attentif sur la poursuite de ce dossier avec notamment comme point de vigilance accru, le suivi trentenaire du site étant précise que la commune de Hasparren privilégie un suivi assuré directement par le Syndicat Mixte Bil Ta Garbi qui a la compétence de traitement en matière de déchets.

Jean-Michel HARGOUS jaunak zehaztu du operazio horretan sartu beharko direla:

- **Berina ontzi gehiagoren erostea – ekoizle handiendako zilo batzuekin** – berinaren biltzeko leku gehiago izan dadin. Horren helburua da 250 bizilaguneko berina biltzeko ontzi bat izan dadin.
- **Profesionalen esku uzten diren ontzi mugikorrak dohainik ezartzea** (ikus Bil Ta Garbi sindikatu anitzak erabiltzen duen jokabidearen bateratzea).
- **Besta saletan eta elkarteen egoitzetan berinaren bereizteko ekipamendu bereziak ezartzea**.
- Horri buruzko komunikazio plan bat (Herriko kazetak, prentsa artikuluak, telebistako erreportaiak...).

Sindikatuko Batzordeak proposamen hori ontzat eman du.

- **Hazketako (*ISDND*) hondarkin ez lanjerosen biltzeko lekuaren hestea:**

Jaun Lehendakariak dosier horri buruzko puntu bat egin du eta jakinarazi du Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzak erabaki duela Hazketako hondarkintegia behin betiko hestea, indarrean den erabiltzeko erabakiak finkatu datan, erran nahi baita 2016ko maiatzaren 31n. Doakion prefetaren erabakia igurikan da.

Hala ere, zuhurtziaz, Hazparneko Herriko Etxeak errekurtsoa aurkeztuko du Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzak hartu hastapeneko deliberamenduak - Hazketako gunearen baliatzea luzatu nahi zuenak - baztertu dituen auzitegi administratiboaren erabakiaz, zinez desiratuz prefetak hartu behin betiko hesteko erabakia data hori baino lehen jin dadin.

Zernahi gisaz, Jaun Lehendakariak zehaztu du dosier horren segitzeko erne egon beharko dela, bereziki gunearen hogeita hamar urteko segimenduari buruz, zehaztua baita Hazparneko Herriko Etxeak nahiago duela Bil Ta Garbi Sindikatu Anitzak segimendua zuzenean segurta dezan, hondarkinen tratatzeko eskumena baitu.

- **Point d'étape sur la Décharge d'Iholdy :**

Monsieur le Président fait un point d'étape sur la décharge d'Iholdy. Ce site a été réhabilité en 2008 mais un glissement de terrain a depuis eu lieu.

Ce désordre s'étant déroulé lors des fortes précipitations enregistrées au Pays Basque le 04/07/14, le maître d'œuvre s'est désengagé de toute responsabilité et la situation est actuellement bloquée.

En conséquence, et après en avoir débattu, le Comité Syndical décide de lancer une procédure contentieuse et propose à l'unanimité comme avocat Maître Pierre Cambot pour ce faire. La délibération correspondante du Comité Syndical sera prise lors de la prochaine séance.

- **Iholdiko hondarkintegiari buruzko puntua:**

Jaun Lehendakariak Iholdiko hondarkintegiari buruzko puntua egin du. Gune hau 2008an berritua izan zen, baina geroztik, lurra litatu da.

Desmasia hori 2014/07/04an Euskal Herrian gertatu aro gaiztoaren karietara gertaturik, obralariak ez du nehongo erantzukizunik bere gain hartu eta egoera blokatua da.

Ondorioz, eta eztabaidatu ondoan, Sindikatuko Batzordeak erabaki du auzibide bat abiatzea eta horren egiteko, Pierre Cambot Jaun abokatua proposatu du, aho batez. Doakion Sindikatuko Batzordearen deliberamendua heldu den bilkuran hartuko da.

- **Vote du Budget Primitif 2016 :**

Monsieur le Président informe ses collèges que le prochain Comité Syndical consacré au vote du Budget Primitif aura lieu le Mercredi 06 Avril à 20 H 30.

- **2016ko Hastapeneko Buxeta:**

Jaun Lehendakariak bere kideei jakinarazi die heldu den Sindikatuko Batzordea, 2016ko Hastapeneko Buxetari buruzkoa, apirilaren 6an iraganen dela, 20:30ean.

La séance est levée à 23 H 00
Bilkura 23:00etan bururatu da

* * * *